



## GEHITU ZILAR BEREZIA

### 2005EKO IRAILA

GEHITU, Euskal Herriko gay eta lesbianen elkarteak "Gehitu zilarra" saria ezarri zuen joera homosexuala dutenen duintasun, berdintasun eta askatasun eskubide funtsezkoen alde egiten berezituriko pertsona edota erakundeak saritzeko.

2005eko ekainaren 30a Espainiako herritarren historian sartuko da, egun horretan behin-betiko onartu baitzen soilik emakumez edo soilik gizonez osaturiko bikoteak ezkon daitezen baimentzen duen Kode Zibilaren aldaketa; horrek gizon-emaztez osaturiko bikoteen baldintza beretan jarri ditu sexu berekoen bikoteak. Justizia eskaria zen aldaketa horrena; norberaren berezitasunak alde batera utzita pertsona ororen eskubideak babesteari begiratuta egina, ezin mantentzen baitzitekeen homosexualen maitasuna ezkontzak ematen duen estatus juridiko, sozial eta erakundezkotik at. Halatan, bada, joera homosexuala dutenei ezkontzeko eskubidea onartzeak guztizko garrantzia du, bai gaur artean laidogarriki baztertuak izan direnentzat, baina baita ere giza-eskubideak gorde daitezen nahi dutenentzat eta demokraziaren sistema berarentzat ere. Aldaketa honek Espainia aurrera eraman du eta Herbehereak, Belgika eta Kanadarekin batera aurreko lekuetan jarri kalitatezko demokraziak

eraikitzeko bidean, herritar orok benetan eskura dezan osoki eta berdintasun betean funtsezko eskubideak baliatzeko aukera.

Lehendik hainbat autonomia erkidegok emanak zituzten zeinek bere izatezko bikoteen legea, bi emazte edo bi gizonei oinarrizko araubide juridikoa baliatzeko aukera eman nahiz, betiere autonomia bakoitzak zituen eskumenen mugetan. Horien artean aipagarri zaizkigu Nafarroako Legebiltzarrak 2000ko uztailearen 3an onarturiko bikote finkoen berdintasun juridikorako 6/2000 Legea, eta Eusko Legebiltzarrak 2003ko maiatzaren 7an onarturiko 2/2003 Legea, Izatezko Bikoteak Arautzekoa. Lege biak garrantzizkoak gertatu dira Espainian eta Hego Europan, bikote homosexuali adingabeak elkarrekin adoptatzeko aukera eman baitzieten. Horrexegatik eman zien, hain zuzen ere, Gehituk, lehenik Nafarroako Parlamentuari eta gero Eusko Legebiltzarrari, "Gehitu zilarra".

Espainiako Gorteek gay eta lesbianeiei ezkontzeko eskubidea onartzeak, lehen esan dugun bezala, biztanleen zati batek konstituzio-eskubideen baliatzean bizi zuen lege bidezko bazterkeria baten eta demokraziaren huts baten amaia ekarri du. Ezkontza instituzioa sexu bereko bikoteen esku jartzea, aurretik hainbat erakundek -besteak beste Nafarroako eta Euskadiko legebiltzarrek- joera homosexualdunak eskubideetan gainerakoekin guztiz berdintzeko bidean eta zituzten oinarrizko eskubideak baliatzeko topatzen zituzten oztopoak kentzeko asmoz harturiko erabakien osagarri izan da. Gehitukide orori horren atsegin zaigun gertakari honengatik zorionak eman nahi dizkiogu Estatuko gobernuari, Kode Zibila aldatzeko proiektua prestatu eta Gorteetara igortzeagatik; zorionak ere, indar bereziz, Jose Luis Rodriguez Zapatero lehendakariari eta Juan Fernando López Aguilar Justizia ministroari, bai eta Gorteetan proiektuaren alde bozkatu eta kongresuan gehiengo kualifikatua eman dioten legebiltzar talde eta kide orori.

Erabaki historiko honetarako funtsezko lana egin dute aldaketa bultzatu eta alde bozkatu duten euskal indar politikoek, eta bereziki talde politiko horien barruan Espainiako gobernuak igorritako lege-proiektuaren alde egiten bereziki saiatu diren politikariek. Kode Zibila aldatzeko lege-proiektuaren alde egiteak are eta balio handiagoa zuen, kontuan hartzen bada integrismo katoliko zabarreneko indar atzerakoiek, izan ere, ezkontza zibilaren, emakumeen berdintasunaren eta dibortzioaren aurka aritu zirenek, kanpaina gogor etengabea antolatu zutela, baliabide handiz antolatu ere, besteak beste Estatu Batuetako lobien laguntzaz; horrez gain, adingabeak gaiztoki eta haien eskubideen aurka erabili zituzten, maskarak jantzi eta pankartak eman baitzizkieten eta manifestazioen buru jarri. Kanpaina horrek sekulako presioa egin zuen herriaren subiranotasunaren ordezkariengan, lehen aipaturiko Estatu Batuetako lobien tradizio gaiztoenaren bidetik.

Gehituk kontuan hartu du ezkontzeko eskubidearen onartzeak duen garrantzia eta horregatik, onar zedin posible egin duten **Gorteetan ordezkariak duten talde politikoei** "Gehitu zilar berezia" ematea erabaki du. Gehituk duen lurralde esparrua eta onartzearen alde egin duten indar politikoek eginiko lanaren garrantzia kontuan harturik, saria Gorteetan ordezkariak duten eta gay eta lesbianok geure duintasun eta berdintasuna onartua izan dakizkigun posible egin duten **Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko talde politikoei** ematea erabaki dugu.

Halatan, bada, Gehituk "Gehitu zilar sari berezia" ematen die, gay eta lesbianen ezkontze eskubidea onartzearen alde egin duten lanarengatik honako alderdi politiko eta koalizio hauei: **Eusko Alkartasuna, Ezker Batua, Nafarroa Bai, Euzko Alderdi Jeltzalea eta Alderdi Sozialista. O9**